

Ignacio Guzmánen hitzaldia

INAEMeko Antzerki zuzendariorde orokorra.Kultura Ministeritza.

“POLITIKA KULTURALAK ARTE ESZENIKOETAN”

Kultura Espainiako Konstituzioan aipatzen da, hainbat agindutan. Sarreratik egiten zaio erreferentzia gai horri; karta magnaren printzipioen artean, jasota dago espainiar guztiei eta Espainiako herri guztiei babesa emango zaiela giza eskubideei dagokienez, eta kulturak, tradizioak, hizkuntzak eta instituzioak babestuko direla, baita Kultura sustatu ere. 9.2. artikularen arabera, botere publikoaren eginbearra da herritar guztiei arlo kulturean parte hartzeko erraztasunak ematea. 44. eta 46. artikuluen arabera, herritarrek Kulturarekiko duten harremana sustatu eta babestu behar du, eta ondare kultural eta historikoa zaindu eta aberastu. Azkenik, 48. eta 50. artikuluetan, Kultura gazteen eta hirugarren adineko pertsonen eskubide espezifikoa dela dago jasota.

148. eta 149. artikuluetan zehazten dira Autonomi Erkidegoek Kultura arloan hartu ditzaketen eskumenak eta Estatuak dauzkanak; hala nola, ondare kultural komuna babestea. Azkenik, zera dago jasota: “haien eskumenei kalterik egin gabe, Estatuak beharrezkotzat joko du Kultura, eta Autonomi Erkidegoen arteko komunikazio kulturala erraztuko du, horiekin bat etorrira”.

Guzti horren ondorioz, esan dezakegu Kultura eskumen konkurrentea dela, Estatuaren eta Autonomi Erkidegoen artekoa.

12/30eko 50/84 Legearen 87.3 artikulua sortu zuen INAEM, Kultura Ministerioari lotutako erakunde autonomo bezala. 80ko hamarkadan antzerkiaren sektoreko sustapen politika bezala ezartzen hasi zen. Hasierako helburua zera zen, une horretan oso ahula zen sare kulturala indartzea. Gainera, Autonomi Erkidegoen egitura kultural publikoak osatzen ari ziren oraindik, eta Kulturaren babeserako eskumenak hartzen.

Gaur egun, egoera guztiz aldatu da eta 1996an, Autonomi Erkidegoen Kultura arloko transferentziak ia amaituta zeudenean, INAEM delakoak, 5/12ko 2491/96 EDren arabera, egitura eta funtzioak berrikusi zituen eta egoera honen barruan zeukan egitekoa birplanteatu zuen, sortu zenekoaren oso desberdina baitzen.

Uste dugu funtsezkoa dela arte eszenikoak sustatzeko politika bat egotea Estatuaren aldetik. Autonomi Erkidegoen eskumenez gain, neurri osagarriak ezarriko lituzke eta horrela nazio mailako sare kultural bat bermatuko genuke, helburu hauei lehentasuna emateko:

1.- Arte eszenikoak sustatu, babestu eta zabaltzea, beren adierazpen guztietan.

- 2.- Estatu espainolean garatutako jarduera eszenikoak atzerrian aurkeztea.
- 3.- Autonomi Erkidegoen arteko komunikazio kulturala, Erakundearen materia propioetan eta horiekin bat etorriz.

Helburu horiek betetzeko, INAEMek gaitasuna dauka jarduera hauek garatzeko:

- 1.- Sustatzeko eta zabaltzeko jarduerak, bereziki laguntza, diru-laguntza, sari eta lehiaketa bidez.
- 2.- Erakundearen ekoizpen musikal, liriko, koreografiko eta antzerki arlokoak programatu eta kudeatzea.
- 3.- Ondare musikal eta antzerki ondarearen inbentarioa, katalogazioa eta zabalkuntza egitea.

Antzerkiko Zuzendariordetzari Erakundearen programazioa eta antzerki-jarduerak egitea dagokio, Zuzendari Nagusiaren arau zuzentzaileen arabera.

2006-2008 hirurtekoan, arte eszenikoen sustapen-politikaren ardatz nagusiak hauek izango dira:

- 1.- Antzerkia ondasun kultural eta zerbitzu publiko bezala ulertzea. Bere baitan, interes pribatu eta publikoak bat etorri behar dira. Horrela, herritarrek kalitateko antzerki eskaintza izango dute, kultura maila altukoa.
- 2.- Garaiko sorkuntza eta Espainiako autore berriak. Espainiako dramaturgo berrien eta ezagutza eta finkatzeari arreta berezia emango zaio.
- 3.- Laguntza-politiken markoan saritu egingo dira proiektu artistiko koherentea daukatela erakutsi dutenak, egonkortasunerako bokazioa eta ibilbide zabala, eta gainera, enpresa-egitura finkatuta daukatena.
- 4.- Joera artistiko eta teknologikoekin lotutako lengoaia eszeniko berritzaileei arreta berezia eskainiko zaie, ikus-entzule berriak erakartzeko asmoz.
- 5.- Espainiako antzerki klasikoak hasieratik XIX. mendeko erromantizismora arte utzitako ondarea zaintzea, dramatika unibertsalaren zati baita.
- 6.- Estatu espainolean garatutako antzerkiak gure mugetatik kanpo daukan presentzia. Oinarrizko ardatza da antzerkia zabaltzeko, eta kulturaren benetako foko bihurtu dadin. Horrela, kultura hurbileneko herrialdeei arreta berezia eskainiko diegu: Europa, Iberoamerika eta Mediterraneoaren hegoaldeko herrialdeak.
- 7.- Gazte eta umeentzako antzerkia. Funtsezkoa da kalitatezko tratua ematea, gure beharrian eta kezkek kontuan izanda, bizitzako lehenengo etapetatik.

8.- Antzerki arloko argitalpenak. Literatura dramatiko berria, azterlan zientifikoak eta antzerkiari buruzko eztabaida intelektualak zabaldu nahi dituzten proiektu editorialei laguntza eman nahi zaie.

INAEMen organigraman izaera artistikoko 2 produkzio unitate daude: Zentro Dramatiko Nazionala eta Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionala eta 3 unitate tekniko: Antzerki-dokumentazioko Zentroa, Antzerkiaren Museo Nazionala eta Ikuskizunaren Teknologi Zentroa.

Administrazio Zentralak INAEMera atxikitako antzerki-ekoizpenen produktora bezala lan egiten du, eta horiek filosofia zehatz baten arabera funtzionatzen dute:

Kudeaketa autonomia, orokorrean, Erakundeari dagokio, eta zehazki, unitate propioari.

Autonomia artistiko osoa eta sorkuntzakoa unitate bakoitzaren zuzendaritza artisikoari dagokio.

Gainera, unitate horiek produkzio artistikoko lanak egiten dituzte, erreperorioen espezializazio printzipio baten arabera.

Zentro Dramatiko Nazionalak, 95/09/20ko 21679 OM delakoak aratuta, helburu espezifiko hauek ditu 2005-2006 aldirako:

- 1.- Egungo Espainiako dramaturgia eta XX. Mendeko Espainiako antzerkia, Espainiako geografian eta atzerrian.
- 2.- Nazioarteko dramaturgia onena, dramaturgia iberoamerikarrari aipamen berezia eginez.
- 3.- Sorkuntza garatzea eta forma eta lengoaia eszeniko berriak sustatzea.
- 4.- Antzeko beste antzerki zentro batzuekin elkarlana sustatzea.

Helburu horiek betetzeko, CDNk jarduera hauek egin ditu:

- 1.- Zortzi produkzio propio eta berremanaldi bat.
- 2.- Lau koprodukzio antzoki pribatuekin eta zentro dramatiko autonomiko eta sektoreko enpresekin.
- 3.- Hiru produkzio gonbidatu euren egoitzetan ematea, Udazkeneko Jaialdia barne.
- 4.- Nazio mailako eta nazioarteko sei bira antzolatzea.
- 5.- Antzerkiaren osagarri diren hezkuntza eta kultura arloko jarduerak programatu eta garatzea. Bi erakusketa, dramaturgiako bost tailer, irakurketa dramatizatuak, bisita gidatuak, produkzioen testu eta koaderno pedagogikoen edizio eta argitalpena.

CDNk 2 egoitza ditu programak garatzeko:

- 1.- María Guerrero Antzokia. Birgaitzealdi baten ostean, aldi berri bat hasi zuen 2003ko maiatzean.

2.- Valle-Inclán Antzokia. 2006an instalazio berriak inauguratu zituen, Udalaren jabetzako eremu batean.

Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionala 86/01/24ko OM delakoak araututa dago, eta aurten 20. urteurrena ospatzen du. Hauek dira bere helburu espezifikoak:

- 1.- Espainiako eta munduko antzerki-ondarea berreskuratu, babestu eta berrikustea, eszenan jartzeko, Urrezko Mendea ardatz hartuta.
- 2.- Garai guztietako testu klasikoak aztertu eta zabaltzea.
- 3.- Antzerki klasikoan adituak diren interpreteak trebatzea; izan ere, Espainiako antzerki-ondareko testuen interpretazioan ez dago tradizioirik.

Helburu horiek betetzeko, CNTCK jarduera hauek egin ditu:

- 1.- Lau produkzio propio aldizkatu dira erreperatorioan zeuden hiru izenbururekin eta bere egoitzan asmo bereko beste erakunde batzuek parte hartu dute, hala nola Kataluniako Antzoki Nazionalak.
- 2.- Espainia osoan eta atzerrian jarduten da, biren bidez. Portugal, Argentina eta Mexikon eta Almagro eta Oliteko jaialdietan.
- 3.- Hezkuntza eta kultura jarduera osagarriak programatu eta egiten ditu; esaterako, antzerki klasikoari buruzko hitzaldiak; Koadernoak (saiakerak), Antzerki Klasikoko Testuak (muntaiak), CNTCren informazio buletina eta Koaderno Pedagogikoa editatu eta argitaratzea.

1999tik, CNTCK Komediaren Antzokia egoitza dauka jabetzan, baina Birgaitze eta konponketa lanek iraun bitartean, Pavón Antzokia da euren egoitza.

Azkenik, arte eszenikoak sustatzeko politikaren bi jarduera-eremu nabarmendu nahiko nituzke:

Arte Eszenikoak sustatzea, bereziki gazteei zuzendutako ekintzen bidez

INAEMen 2006ko Antzerki Programan hau nabarmendu da: “gure antzerki-politikaren oinarritzko helburua heziketa lanaren bidez ikus-entzule berriak erakartzea da”. Eta helburu hori betetzeko, jarduera hauek garatuko dira:

- 1.- Programatutako muntaia eszenikoei buruzko Koaderno Pedagogikoak argitaratzea; autorea, obra eta garaiari buruzko analisiak; ikuskizunaren egitura, eszenografia eta jantziak; bibliografia eta funtzioa ikusi aurretik eta ondoren ikasgelan egiteko jardueren proposamena.

2.- Heziketa zentroetan solasaldiak antolatzea, konpainiako aktoreen eta funtzioak ikustera doazen ikasleen artekoak.

3.- Sarrerren prezioetan deskontu bereziak gazteentzat.

4.- Gazte taldeen bisita gidatuak, antzokien instalazioetatik.

5.- Antzerki testuen "Marqués de Bradomín" lehiaketa, aurtore gazteentzat.

6.- Ume eta gazteentzako antzerkia komunikabideen aurrean zabaltzeko Ekitaldi instituzionala. "Escenarios de la Imaginación" argitalpena aurkeztuko zaie, INAEMen ekimenei buruzko informazioa emateko, ume eta gazteentzako antzerkiaren arloko konpainia, sala, azoka, jaialdi eta elkarteei.

7.- "Premios Buero de Teatro Joven" nazio mailako lehiaketa da. Coca-Cola Fundazioak eta Hezkuntza eta Kulturako Ministerioek sustatzen dute, eta helburua zera da: antzerkiarekiko zaletasuna bultzatzea eta gazteen sormen artistikoa estimulatzea. Gainera, Espainiako ikastetxeetan eta kultur etxeetan antzerki taldeak trebatzea ere badauka helburu.

Ekintza guzti horiek Gazteriaren Institutuko 2005-2008 Gazte Planaren barruan daude, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren barrukoa.

Antzerkiaren azpiegitura berreskuratu eta Birgaitzea

Espazio eszenikoen kudeaketan, INAEMen politika kulturalari dagokionez, hau nabarmendu behar da lehenengo eta behin: Estatuak, INAEMen bidez, bere egiteko konstituzionala bete behar du, Autonomi Erkidegoen arteko harremanak erraztu eta guztion ondare artistiko eta monumentala babestu.

INAEMek Autonomi Erkidegoen arteko harremanak bideratzen ditu, eta guztion ondare kulturala babesten du, diru-laguntza hauen bidez:

1.- Espazio eszenikoak mantentzen laguntzea. Urteko programazioaren barruan, %30a gutxienez Autonomi Erkidegoetako ekoizpenak izango dira, kultur gunehorretakoak ez direnak.

2.- Laguntza emango zaie Autonomi Erkidego desberdinetatik datozen ikuskizunen banaketa errazten duten guneei.

2.1.- Laguntzak emango zaizkie urte osoan antzerki jarduerak martxan dituzten tokiko taldeei.

2.2.- Laguntza emango zaie gune pribatuei, Madril eta Bartzelonan sortutako Consorcios de Rehabilitación de Teatros delakoen bidez kudeatzen direnak.

Madrilen kasuan, Partzuergo hori osatzen duten hiru Administrazioek (zentrala, autonomikoa eta lokala) 1994an hasitako lanarekin jarraitzen dute, jabe diren enpresekin elkarlanean. Antzoki zaharrak berreskuratzen ari dira, indarreko segurtasun eta babes zibileko arauetara egokitzen eta ekipamendu eszeniko modernoago batez hornitzen. 2006an ebatziko da Madrileko gune eszenikoen birgaitze, hobekuntza eta modernizaziorako laguntzen 12. deialdia.

Bartzelonaren kasuan, hiru Administrazioek hitzarmen bat sinatu zuten 2001eko azaroan. Konturatu ziren eremu eszenikoan hiriaren lehentasun handienetako bat zela antzokiak Birgaitu eta modernizatzea, azpiegitura eszenikoz hornituz.

2.3.- Antzoki publikoentzako ekipamendu eszenikoetarako laguntzak. Sustapen Ministerio eta Kultura Ministerioaren arteko Batzorde Misto batek aukeratzen ditu eta obra publikoaren inbertsioen %1 eraikin historikoak zaharberritu, mantendu eta birgaitzeko eta jarduera artistikoa sustatzeko erabiltzen da: "%1 Kulturala" deritzona.

Gauza bat nabarmendu nahiko nuke: 1994tik, bi Ministerioen arteko hitzarmena indarrean sartu zenetik, hasitako jarduera eta programak, esaterako Programa de Teatros, hainbat erakunderen arteko elkarlanaren fruitu dira; Estatuko Administrazioa Autonomi Erkidegoekin, Udalekin eta Aldundiekin. Argi dago ezinbestekoa dela kultura arloko azpiegiturek arrakasta izateko.